

## Aurreneko fruituak

Astigarragan eta Ajangizen dauden lursail hektarea batzuk ditugu jada. Proiektua bere konplexutasun osoan garatzeko, bazkideek eurek osatutako lan taldeak martxan daude.

## Gure saskiak



10€

15€

Astero edo Hamabostero

## Hurbilekojalea dendak

Produktu ekologikoak, hurbilekoak eta sasoikoak bultzatzeko asmoarekin produktu agroekologikoen salmentarako dendak bultzatzen ari da ner group. Lehen denda ireki da Beasainen.

hurbilekojalea



lur denok

## Bazkide izan nahi duzu?

Bazkide izateko 300 euroko akzio bat erosi behar duzu gutxienez, 12 ordainketetan egin dezakezuna. Bestalde, bazkide izatea erabaki baino lehen, 3 hilabeteko froga egin dezakezu saskiak kontsumitzen.


www.lurdenok.com

lurdenok@lurdenok.com

946 402 017


ner group

Elikagai eta baratze ekologikoak



# Eman aurrera pausua mundua aldatzen hasi nahi baduzu ....

lur denok

ner group



*Ilusioa*

*parte-hartzea*

*konpromisoa*

# Ereintza

2011ko abenduan sortutako erakundea gara, hasieratik 160 pertsona eta 21 erakundek osatua:

- Nekazaritza ekologiko proiektuak abiarazi nahi ditugu, gizarteari irekiak, elikagai ekologikoen ekoizpen eta komertzializaziorako.
- Gizarte integratzaile eta orekatu bat garatzea posible egiten duen eraginkortasun eta eskuzabaltasunean sinesten dugu.
- Bazkide guztien ilusioa, parte-hartzea eta konpromisoa bilatzen ditugu Ezagutza ondasunaren aurretik jartzen dugu.

# elikatzen gaituena




*Herrialdean hutsik dauden edo etekin baxua ematen duten lurrak berreskuratzea,* jabeentzat eta bertako ingurunearentzat arazo izatetik, gertukoa den eta gutxiago kusatzen duen nekazaritza ekologikoaren bidez, emakor bihur litezkeenak.

- *Lanpostuak sortzea:* gaurko gizartearen arazo nagusia langabezia da. Gizartearen maila guztietan jarduera gabezia kezkagarria da. Baratze ekologikoen jarduera honek pertsona horiek guztiak har litzazke.
- *Elikaduraren kultura sortzea* Elikadura osasungarriaren inguruko kultura bultzatu nahi dugu. Ondo elikatzeak elikagai osasutsuei, garaikoei eta kontsumitzaileengandik gertu daudenei buruz hitz egitea dakar.
- *Ikastetxeetan formazio eta heziketa-lana egitea.* Naturako esperientzia platerera eramatea.
- *Baratze ekologiko* baten zergatia eta zertarakoa ezagutu nahi duten beste erakunde eta pertsonekin komunikatzeko eta elkarlanean aritzeko ateak irekita izatea.
- *Bazkide edo/eta kontsumitzaile diren familiak hurbiltzea,* jaten dituzten produktuen ereintza, zainketa eta uzta bilketa ezagutu eta parte har dezaten.

www.lurdenok.com